

AURRERAPEN AGIRIA

AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA, BIZKAIKO BIDE-AZPIEGITURETAN BERRIKUNTZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENARI DAGOKIONA

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak uste du berrikuntza eta azken teknologiak bultzatu behar direla Bizkaiko bide-azpiegituretan, bai eta ekonomia zirkularra ere. Horretarako, komenigarritzat jotzen du gaur egunera arte egon den laguntza publikoen sistema egokitzea, Bizkaiko bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzei dekretu berri baten bidez.

a.- Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa

Iraultza teknologiko eta sozial orokor baten aurrean gaude. Teknologia berriek, batez ere digitalizazioak eta automatizazioak, joera sozial berri batzuekin batera (esaterako, ingurumen-iraunkortasunaren aldeko sentibiltatea eta erabiltzailean oinarritzen den mugikortasun kolaboratiboa eta partekatua), eragina dute pertsonen interakzioan, joan-etorrietan eta lankidetzan.

Berrikuntzak ekintza-tresna estrategikoa izan behar du errealitate berri horretara egokitzeko. Katalizatzaile bat izan behar du teknologia berriek, gizarte-eredu berriek eta ingurumenaren iraunkortasunak ezarriko dituzten erronkei eraginkortasunez erantzuteko; horrek dakar Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak egiten dituen jardueren balioa maximizatzea, Bizkaiko bide azpiegituretan ia 1.300 km kudeatzen dituelako.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak herritarrei foru-errepideen sare seguruago, modernoago eta fidagarriago bat eskaintzeko eta sare hori teknologia zein joera berrietara eta ingurumenaren iraunkortasunera egokitzeko sustatutako jarduketan parte dira dekretu hau eta haren helburuak.

DOCUMENTO DE AVANCE

TRÁMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE LAS SUBVENCIONES PARA LA PROMOCIÓN DE LA INNOVACIÓN EN LAS INFRAESTRUCTURAS VIARIAS DE BIZKAIA

El Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial considera necesario fomentar la innovación y la adopción de las últimas tecnologías, así como fomentar la economía circular en las infraestructuras viarias de Bizkaia. Para ello, considera conveniente adecuar el sistema de ayudas públicas existente hasta la fecha, mediante un nuevo decreto de subvenciones para la promoción de la innovación en las infraestructuras viarias de Bizkaia.

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación

Estamos presenciando una revolución tecnológica y social global. Las nuevas tecnologías, principalmente la digitalización y la automatización, acompañadas de nuevas tendencias sociales como la sensibilidad hacia la sostenibilidad ambiental y la cultura de movilidad centrada en el usuario, colaborativa y de compartición, están impactando a la forma en que las personas interaccionamos, nos desplazamos y colaboramos.

La innovación debe ser instrumento de acción estratégica para adaptarse a esta nueva realidad. Debe constituirse como catalizador para afrontar con eficiencia los retos que impondrán las nuevas tecnologías, los nuevos modelos sociales, y la sostenibilidad medioambiental, maximizando el valor en todas las actividades que desarrolle el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial en su condición de gestor de cerca de 1.300 km de infraestructuras viarias en Bizkaia.

Este decreto y los objetivos en él perseguidos, forman parte del conjunto de actuaciones impulsadas por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial en su misión de proporcionar a la ciudadanía una red viaria foral cada vez más segura, moderna y fiable, adaptada a las nuevas tecnologías y tendencias, y medioambientalmente sostenible.



b.- Testu arauemailea onartzea beharrezkoa den eta aukerarik egokiena den ala ez

Gure garaiko erronkarik eta aukerarik handiena da gurea klimatikoki neutroa den lehen kontinentea izatea. Hori lortzeko, Europako Batzordeak Europako Itun Berdea aurkeztu zuen 2019ko abenduan.

Garraio berotegi-efektuko gasen isurien % 25 da Europan, eta gorantz egiten ari da portzentaje hori. Itun berdearen helburua da isuri horiek % 90 murriztea hemendik 2050era arte.

“Vision zero” izeneko helburua lortu nahi da, hau da, Europar Batasunean 2050. urtean zero hildako egotea Europako errepideetan.

Europar erronka hori errealitate bihurtzeko, agente pribatuek, estatu kideek eta eskualde- zein toki-administrazioek lankidetzan jardun beharko dute mugikortasun konektatu eta automatizatu baten ikuspegi komunean.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpenak hau izan behar du: foru-errepideen sarean dauden 1.300 kilometroak modernizatu, digitalizatu eta iraunkorrago bihurtzea, berrikuntzak aplikaturik.

c.- Arauaren xedea

Helburua da foru-errepideen sarea hobetzea eta modernizatzea, teknologia aurreratu berriak modu iraunkorrean eta ingurunean integratuz aplikatu eta probatu daitezkeen.

Hori lortzeko, diruz lagunduko da bide-azpiegituren arloan berrikuntza-proiektuak egitea; proiektu horiek koherente izan behar dute erakunde eskatzailearen jardura nagusiarekin eta foru-errepideen sarean probatu behar dira.

d) Planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Berrikuntza-proiektuak dirulaguntzen bidez sustatzea administrazio publikoek sarri erabili ohi duten tresna bat da eta beste tresna batzuen osagarria izaten da, hala nola onura fiskalena eta zuzeneko laguntzena.

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo

Convertirse en el primer continente climáticamente neutro es el mayor reto y la mayor oportunidad de nuestro tiempo. Para lograrlo, la Comisión Europea presentó, en diciembre de 2019, el Pacto Verde Europeo

El transporte representa en Europa un 25% de las emisiones de gases de efecto invernadero, que siguen aumentando. El Pacto Verde busca reducir estas emisiones el 90% de aquí a 2050.

Se espera conseguir la llamada “visión cero”, es decir, el objetivo de que en la UE en 2050 se hayan reducido a cero las víctimas mortales en las carreteras europeas.

Para que Europa convierta esta ambición en realidad, los agentes privados, los Estados miembros y las Administraciones regionales y locales tendrán que cooperar en el desarrollo de una visión común de la movilidad conectada y automatizada.

La aportación de la Diputación Foral de Bizkaia debe pasar por modernizar, digitalizar y hacer más sostenibles los casi 1.300 km de vías forales, mediante la aplicación de innovaciones.

c.- Objeto de la norma

El Decreto tiene por objeto la mejora y modernización de la red foral viaria a efectos de aplicar y probar nuevas tecnologías avanzadas, de forma sostenible e integrada en su entorno.

Para ello apoyará la ejecución de proyectos de innovación en el ámbito de las infraestructuras viarias, coherentes con la actividad principal de la entidad solicitante y que se prueben en la red viaria foral.

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

El apoyo a proyectos de innovación mediante subvenciones es un instrumento comúnmente utilizado por las administraciones públicas y complementario a otros instrumentos como pueden ser los beneficios fiscales o las ayudas directas.



Ilde horretan, Bizkaiko bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dekretuak bermatzen du onuraduna izateko baldintzak betetzen dituen erakunde guztiek parte har dezaketela deialdian, eta erantzuna ematen dio orain arte Bizkaiko Foru Aldundiaren beste ezein programak erantzuten ez zion berrikuntza-proiektuen arlo bati (bide-azpiegitura foraletan aplikazioa duten berrikuntza-proiektuen arloari).

En este contexto, el decreto de promoción de la innovación en infraestructuras de Bizkaia garantiza la participación abierta a cualquier entidad que cumpla con la condición de beneficiario, y cubre un nicho de proyectos de innovación (aquellos con aplicación en las infraestructuras viarias forales) que no estaba cubierto hasta la fecha por otros programas de ayudas de la Diputación Foral de Bizkaia.